

Diario Vasco eta Soraluce Koop.E.ra bisita

2007/11/20

Administrazioa eta Finantzak eta Merkataritza Kudeaketa eta Marketinga
heziketa zikloetako 25 ikaslek bi enpresa bisitatu dituzte azaroaren 20an:

Diario Vasco eta Soraluce, Koop. E.

DV egunkarian errotatibak nola funtzionatzen duen eta paper biltegia nola kudeatzen den ikusteko aukera izan dute. Osintxuko Soraluce kooperatiban, aldiz, makina-erremintaren ekoizpen prozesua ezagutu dute, baita Danobat taldearen zifra ekonomiko eta laboral garrantzitsuenak.

Bisiten helburua enpresara lehen hurbilpen bat egitea da eta, era berean, enpresen barne funtzionamenduaren oinarritzko ezagutzak lortzea.

Helburuak beteta eta opari eta guzti bueltatu dira ikasleak bisitatik, izan ere, Diario Vascok Gipuzkoako erliebedun mapa bat eman die bakoitzari.

